

IBILGAILUEN TASA OSO MURRIZTUA APLIKATZEKO ESKAERA. EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK.

Nork bete behar duen inprimakia.

Inprimaki hau ondoren zehaztuko diren ibilgailuak eskuratzean balio erantsiaren gaineko zergaren % 4ko tasa oso murriztua aplikatu nahi dutenek bete behar dute: gurpil aulkian dabilzan desgaituak garraiatzeko erabiltzen diren autotaxi edo autoturismo bereziak, zuzenean zein moldaketa egin ondoren, bai eta gurpil aulkian dabilzan desgaituak edo mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailu motordunak ere, moldaketa egin ondoren zein ez, gidaria nor den kontuan hartu gabe.

Aplikazio eremua.

Tasa oso murriztua aplikatu aurretik azterketa egiteko eskumena eskuratzailaren zerga egoitza dagoen lurraldeko administrazioak edukiko du.

Eskatzailea.

Gurpil aulkian dabilzan desgaituak edo mugikortasun urritua duten pertsonak garraiatzeko motordun ibilgailua eskuratzen edo egokitzen duten pertsona fisiko edo juridikoek eska dezakete BEZaren % 4ko tasa oso murriztua aplikatzeko.

Desgaitasuna duten pertsonak.

Gurpil aulkian dabilzan desgaituak edo mugikortasun urritua duten pertsonak garraiatzeko eskuratu edo egokitu den ibilgailua erabiltzen duen desgaitua eta/edo mugikortasun urriko pertsona identifikatu beharko da, baldin eta beharrezkoak diren betekizunak betetzen baditu tasa oso murriztua aplikatzeko.

Ibilgailuaren ohiko gidaria.

Ibilgailuaren aseguru polizan ohiko gidari gisa erregistratuko den pertsona identifikatuko da, hark erabiliko baitu gehien.

Ibilgailuaren ezaugarriak.

Ibilgailuaren fitxa teknikoan ageri diren datuak jarriko dira, eta dagoeneko matrikula badauka, matrikula hori.

Aurkeztu beharreko agiriak.

Besteak beste, honako egiaztagiri hauek aurkeztu ahal izango dira:

1. Agiri bat egiaztatzen duena ibilgailua erabiliko dela garraiatzeko % 33ko desgaitasuna edo hori baino gehiago izan eta gurpil aulkian dabilzan pertsonak edo mugikortasun urritua dutenak.
2. Desgaitasun mailaren egiaztagiria, bai eta onuraduna gurpil aulkian dabilela edo mugikortasun urria duela frogatzekoa ere.
3. Proformako faktura, saltzaileak emana, behar izanez gero.
4. Ibilgailua eskuratu duenaren eta desgaituaren errolda agiria, behar izanez gero.

5. Ibilgailuaren aseguru etxearen egiaztagiria, baldin eta erabateko ezbeharrak gertatu bada eta lau urte, behintzat, igaro ez badira aipatutako zerga onura aplikatuta beste ibilgailu bat eskuratu zenetik.

6. Eskatzaileak bere eskubideak baliatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri (Espainiako Itsuen Erakundeko kidea izatearen egiaztagiria, desgaituentzako aparkatze txartela etab.).

Aurkezteko epea eta tokia.

Eskaera ibilgailua eskuratu aurretik aurkeztu behar da.

Eskaerak Arabako Foru Ogasunaren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalean aurkeztuko dira, edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoaren bidez.